

Banaketa eta komunikazio kanalak

Guk eskaintzen dugun APPa erabat berritzailea eta gaur egun dagoenarekin desberdina denez, garratzi handi emango diegu, produktua jendeak ezagutzeko prozesuari. Gehienbat geroz eta supermerkatu bakoitzean APP erabiltzaile gehiago baldin badaude, supermerkatu gehiagok gure produktua ezagutu eta ondorioz erosiko dutelako. Bezeroekiko Harremana zehazten duen atalean bezala gure produktuaren berezitasuna ikusirik (bi mailako bezeroak ditugu), bi modutan burutuko ditugu marketin kanpainak:

-Alde batetik, eta enpresari hasiera emateko Supermerkatu kaptazio kanpaina bat egingo dugu. Gure komertzialak supermerkatuetara hurbilduko dira, eta bertan lekuko marketin zuzendariari gure proiektu aurkeztuko diote. Horretarako APParen bozetoa aurkeztuko diegu, eta beraien enpresan (supermerkatuan) FindMarket APPa ezartzeak zein onura ekar ditzan azalduko diegu, horretarako hainbat ikerketa aurkeztuko diegu (Erosleak aurrezten duen denbora, APParen erabiltzaile potentzialen datuak...)

-Bestetik, bein supermerkatu bakoitzaren **FindMarketa** eginda dugunean, supermerkatu horretako bezeroen (2.mailako bezeroak) artean ezagutzera emango dugu **FindMarket**. Horretarako 4 modu deberin erabiliko ditugu; batetik supermerkatuan bertan burutuko diren ekintzak, eta bestetik sare sozialetan eta kaleetan egingo den publizitatea.

-SUPERMERKATUETAKO EKINTZAK:

-Supermerkatu batean APP publikatzen den astean, supermerkatuan bertan Stand bat jarriko dugu, non gure komertzial batek handik igarotzen diren supermerkatuko bezeroei FindMarket APP aurkeztuko die, zer zertarako eta nola erabiltzen den azalduz, eta berezoei dudak konponduz. Supermerkatuei APP saltzen diegunen zerbitzu hau aste batez emango diegu opari bezala, baina beraiek ordu gehiago nahi izanez gero, gure zerbitzua orduko 40 eurotan kobratuko dugu.

-Megafoniaz entzuteko irrati-iragarki moduko bat prestatuko dugu, APP ezaguaraztea lehen aipatutako komertzialaren presentzia ezaguarazteko.



-SUPERMERKATUTIK KANPOKO EKINTZAK:

-Supermerkatu batean FindMarket ezartzen dugunean, supermerkatu horretako inguruko etxebizitzetan FindMarket APPa aurkezten duen flyhera banatuko dugu.

-Gure sare sozialetan (Instagram, Facebook, Twiter) aplikazioaren berriak emango dizkiegu gure jarraitzailei, eta FindMarket zein supermerkatutan ezartzen dugun esaten joango gara.Hau da,gure sare sozialetan Find Market aplikazioaren espansioaz informatuko dugu.



-Gure lehen bezeroak (supermerkatuak) ditugula, influencerren zerbitzuak kontratatuko ditugu, APParen enbaxadore moduan, honela gustu desberdineko pertsonai FindMarket ezaguaraziko diegu. Gu Iban Garcia-rekin eta Verdeliss-ekin kontaktuan jarriko gara eta beraiek Instagramen, Facebooken eta Twiterren bidez publizitatea egingo digute.



IBAN GARCIA



VERDELISS